BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2093

26/2015 EBAZPENA, maiatzaren 12koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, lehiaketa publiko honen Balorazio Mahaia osatuko duten kideak izendatzeko erabakia argitaratzea xedatzen da: Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoa.

2015eko maiatzaren 12an eginiko batzarrean, Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsi egin du lehiaketa publiko honen Balorazio Mahaia osatuko duten kideak izendatzeko erabakia: Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoa. Horrenbestez, erabaki horri beharrezko publizitatea emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea lehiaketa publiko honen Balorazio Mahaia osatuko duten kideak izendatzeko erabakia: Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoa. Erabaki hori eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 12a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 12KO 26/2015 EBAZPENARENA

ERABAKIA, LEHIAKETA PUBLIKO HONEN BALORAZIO MAHAIA OSATUKO DUTEN KIDEAK IZENDATZEKO DENA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MAIZTASUN-MODULAZIOKO UHIN METRIKOETAKO IRRATI-KOMUNIKAZIOKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO LIZENTZIAK EMATEKO LEHIAKETA PUBLIKOA

Maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-difusio soinudunaren plan tekniko nazionala onartzen duen irailaren 1eko 964/2006 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoak eman beharreko 34 maiztasun planifikatu zituen guztira.

Euskadin ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateko araubide juridikoa arautzen duen ikus-entzunezko komunikazioari buruzko 231/2011 Dekretuaren 8.1 artikuluaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2012ko otsailaren 28ko batzarrean, Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoa arautzen duten oinarriak onetsi zituen, eta, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 29ko Aginduaren bidez, lehiaketa publikoaren deialdia egin zen.

Organo eskudunak irekitako prozeduraren bitartez bideratutako espedientea hasi ostean, eta lehiaketako Balorazio Mahaiak lizentziak adjudikatzeko proposamena egin eta gero, Jaurlaritzaren Kontseiluak, lizentzia horiek eman baino lehen, 2012ko abenduaren 11n egin zuen batzarrean, erabaki hau hartu zuen: «maiztasun-modulazioko uhin metrikoen bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketari interes orokorreko arrazoiengatik uko egiteko erabakia».

2014ko azaroaren 7an, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salako Lehen Sekzioak 494/2014 zenbakiko epaia eman zuen, Radio Estudio S.A.k eskatuta aurkeztu zen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ebazteko. Jaurlaritzaren Kontseiluak hartu zuen 2012ko abenduaren 11ko Erabakia argitaratzea xedatu zuen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren urtarrilaren 10eko 1/2013 Ebazpenaren aurka jarri zuen errekurtso hori Radio Estudio S.A.k.

2014ko abenduaren 19ko antolaketa-eginbideak irmo deklaratu zuen epai horrek hau xedatzen du: errekurritutako erabakia baliogabetzea eta «lehiaketaren prozedura egintza horren aurreko unera eramatea, errekurtsogilearen alde mahaiak egin zuen lizentziaren esleipen-proposamena behin betiko esleipen-proposamen bihurtuz».

Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko azaroaren 8ko 231/2011 Dekretuaren 12.1 artikuluak ezartzen duenaren arabera, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoen Balorazio Mahaia Jaurlaritzaren Kontseiluak izendatutako bost pertsonak osatuko dute.

Honako hauek Balorazio Mahaiko kide izango dira: Kontrol Ekonomikoko Bulegoko kontu-ikuskari bat eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzako teknikari bat. Horien izendapena dagokion sailak proposatuta egingo da. Gainerako pertsonak gaur egungo Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak proposatuta izendatuko dira.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoa arautzen duten oinarriek hogeita batgarren klausulan adierazten dutenez, gaur egungo Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta

Kultura Sailak Jaurlaritzaren Kontseilura eramango ditu izendapen-proposamenak. Oinarri horiek Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsi zituen 2012ko otsailaren 28an.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak, aztertu ostean, hau

ERABAKI DU:

«Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoaren Balorazio Mahaiko kide izendatzea honako hauek:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak proposatuta:

Jose Manuel Bujanda Arizmendi jauna, Kabineteko zuzendaria.

Jasone Vicandi Enbeita andrea, Komunikazio eta Zabalkunde Zerbitzuko arduraduna.

Adolfo González Ortega jauna, Komunikabide Zerbitzuko aholkulari juridikoa.

Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta.

José Angel Rodríguez González jauna, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzako Informatika Zerbitzuko arduraduna.

Inaxio Etxeberria Loidi jauna, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko kontu-ikuskaria.

Bigarrena.– Jose Manuel Bujanda Arizmendi jauna izendatzea Balorazio Mahaiko buru. Balorazio Mahaiak berak izendatuko du, kideen artetik, nor izango den Balorazio Mahaiko idazkaria.

Hirugarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea».